

Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan

Azaroaren 25 honetan, emakumeok espazio publikoa askatasunez erabiltzeko eskubidea aldarrikatu nahi dugu, eta fokua jarri nahi dugu askatasun indibidual eta kolektibo horren garapena murrizten duten mekanismoetan, eta bereziki sexu-indarkerian. Izan ere, emakumeon aurkako sexu-indarkeriak, funtzio zehatz bat betetzen du egungo gizarte patriarkalean: emakumeok kontrolatzea eta gure askatasuna murriztea.

Egunerokoan geure herrietan, eta era berezitan Jai- eta aisialdi-testuinguruetan, sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzioa betetzen du, bai eta haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.

Beraz, tokiko erakundearen betebeharra da eskura dituen baliabide, estrategia eta mekanismo guztiak eskaintzea, emakumeek eta neskek espazio publikoaren erabilera berdintasun baldintzetan burutu dezaten, beldurraren pertzepzioa murriztuz, eta espazio seguruak eraikiz. Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, «*Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak*», espazio publiko seguruak eta ahalduntzaileak sustatzen du emakumeentzat eta neskentzat, sexu-jazarpenerik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen aldeko Herri-Itunaren ildotik.

Hala ere, kontuan izan behar dugu erreklamaturako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen; emakumeen eta nesken interesen, nahien eta beharren arabera eraikitako espazioak erreklamatzeko ditugu, bizitzeko, sozializatzeko, bakoitzak bere ekarpena egiteko eta askatasunez garatzeko.

Esparru horretan, Oñatiko Udalak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

1. Aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatok indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak eta genero-berdintasuna sustatzeko ekimenak bultzatzea, horretarako beharrezko diren baliabide ekonomikoak bideratuz.
2. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak txertatzea hiri-antolamenduaren gaineko plangintzetan, emakumeen beharrianak kontuan har daitezen, eta beharrezko neurri zuzentzaileak bideratzea.
3. [Berdinsarea](#) eta bestelako erakunde eta koordinazio eta lankidetzaren egitura batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin

besteak beste, bai eta herriko mugimendu feminista eta bestelako eragileekin ere.

4. Jai eremuan ematen diren erasoen prebentzio eta arretarako bitartekoak eskaintzea, eta mugimendu feministarekin ausnarketarako espazioak zabaltzea, estrategia partekatu bat eraikitze aldera.
5. Udal-mailan eman daitezkeen sexu-erasoen prebentziorako, arretarako eta erreparaziorako baliabideak eta prozedurak jasoko dituen euskarri edo protokoloa adostea.